

Matematikakoak ez diren problemak

Helburuak*

1. **Gatazkak konpontzeko** moduari heltzea, adibidetzat ikasleek hurbil dituzten egoerak hartuta.
2. **Gerrak eta bakeak** eragiten dituzten sentimenduak identifikatzea.

Jardueren eskema*

1. **Gatazka ikastetxean** (Bi zikloak)
2. **Bide estua** (Bi zikloak)
3. **Gerra eta bakea** (Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa)
4. **Ondorioak** (Bi zikloak)

Jarduera eta orientazio didaktikoen garapena*

1. Gatazka ikastetxean

Jarduera azaltzen hasi baino lehen, gatazkak bizitzan ohikoak direla esango du irakasleak, eta zenbaitetan, indarkeria ere eragin dezaketela. Hori dela eta, elkarbizitza hobetzeko eta ikastetxeetan indarkeria prebenitzeko, oso garrantzitsua da gatazkak modu konstruktiboan konpontzea; besteak beste, pentsatuz, entzunez, mintzatuz eta negoziatuz.

Ikasle guztien artean, istorioak irakurriko dituzte. Horrez gain, istorio bakoitzeko gatazka konpontzeko moduak proposatu beharko dituzte, bai idatziz, bai marrazkien bidez. Ondoren, denen artean edo talde txikitik banatuta, honako egoera hauek aztertu beharko dituzte:

- Zuzen deritzozu pertsonaia bakoitzaren jokabideari?
- Zergatik jokatu zuten horrela?
- Nola konponduko zenuke kasu bakoitza?

Ondoren, istorioak islatzen dituzten irudiak margotu ditzakete.

Azken aldi honetan, ikastetxeko jolastokian, zenbait arazo gertatzen ari dira, jolas orduan. Borrokak gertatzen ari dira mutikoen eta neskatilen artean. Mutil talde batek ia jolastoki osoa hartzen du, futboleko aritzeko, eta ez die neskei jolasteko lekurik uzten. Neskek leku handiagoa nahi dute eta futbol partiden erdian sartzen hasi dira. Mutilek bultzaka ateratu dituzte.

Ainarak bere ikasgelako zenbait mutil eta neska gonbidatu zituen bere urtebetetze jaira. Biharamunean, Maialenek, jaira joateko gonbidapena izan ez zuen ikaskide batek, bultzatu egin zion Ainarari jolastokian, bere ondotik pasatu zenean. Ainarak ere bultzatu egin zion, eta orduan, bien arteko tirabira hasi zen.

Ikasleek besteen aurrean aurkeztu beharko dituzte pentsatu dituzten konponbideak; lehenik, marrazkiak, eta ondoren, idatzitakoa. Irakasleak, ikasleek ikaskide guztien ekarpenak balioetsi ditzaten saiatu behar du. Behin taldeen azalpenak amaituta, irakasleak galdera hauek egingo dizkie:

- a. Antzeko zerbait gertatzen al da gure ikastetxean?
- b. Zer-nolako gatazkak gertatzen dira ikastetxean?
- c. Nola konpontzen ditugu?
- d. Nola sentitzen zarete gatazka bat gertatzen denean? Eta konpontzen duzue?

Irakasleak antzeko kasuak proposatzeko eta konponbideak azaltzeko eskatuko die ikasleei. Gero, gatazkak konpontzeko hitz egitea eta alderdi guztiak asetzen dituzten konponbideak bilatzea garrantzitsua dela azaldu beharko du.

2. Bide estua

Dinamika honekin, honako ideia hau helarazi nahi zaie ikasleei: gatazka asko konpontzeko, denbora luzea behar da, inork ez dakielako zehatz-mehatz nola konpon daitezkeen.

Hitz egitea, aktiboki entzutea eta denen iritziak garrantzitsutzat hartzea dira gatazkak behar bezala konpontzeko oinarriak.

Dinamikaren garapena

Jarduera honetan, enbalatzeko paper-zinta bat –gutxi gorabehera, 5 edo 6 metroko luzerakoa eta 15 zentimetroko zabalerakoa – jarri behar da ikasgelako lurrean. Irakasleak bi taldetan banatu behar dira, eta talde bakoitza paperaren mutur batean jarriko da. Bi taldeen helburua paperaren gainetik beste muturrera pasatzea da, ahalik lasterren eta paperetik kanpo zapaldu gabe. Eremitik kanpo –zapataren puntarekin bada ere– zapaltzen duen mutila edo neska kanporatuta geratuko da; izan ere, paper zerrenda inguru zingiratsu baten erdiko bide bakarraren ikurra da. Seguru asko, haur asko kanporatuta geratuko dira lehen saialdian; hortaz, berriro egingo dugu jarduera (beste behin edo bitan, baina ez gehiagotan), denak pasatzeko konponbideak pentsatu behar dituztela azaldu ondoren.

Jardueraren helburua, nola jokatzten duten eta alde batetik bestera nola pasatzen diren ikustea da; alegia, negoziatu egiten duten, indarrez pasatzen diren edo indarkeriaz jokatzten duten, besteak beste.

Zenbait ideia, jardueraren ondorengo eztabaidarako:

- Nola sentitu zarete jolasean zehar?
- Zuen ustez, zer irakatsi nahi digu jarduera horrek?
- Nola jokatzten dugu hasieran? Zergatik?
- Gatazken aurrean jokatzeko ohiko modua al dugu? Zergatik?

3. Gerra eta bakea

Jarduera honen xedea ikasleek gerrak eta bakeak zer iradokitzen dieten azaltzea da, marrazkien bidez. Halaber, ikasleek kontzeptu horien inguruan aldez aurretik dituzten ideiak landuko dira.

Jarduera hau aurrekoarekin lotzeko, gerra sufrimendu eta min handia sortzen duen gatazka mota bat dela azalduko zaie haurrei. Munduko leku askotan, gerrak ez dira filmetan edo marrazki bizidunetan agertzen diren zerbait. Hain zuzen, mutil eta neska askok eta heldu askok egunero ikusi eta bizitzen duten zerbait dira.

Dinamikaren garapena

Ikasleek ikasgela apainduko dute, bi kontzeptuak irudikatzen duten giro banaren bidez, aldizkarietako argazkiak eta ebakinak erabilita, besteak beste. Ondoren, irakasleak galdera hauek egingo ditu:

- Zer sentimendu eragiten dizkizue gerrak? Eta bakeak?
- Zer irudi dira irudikatzeko errazagoak, bakearenak ala indarkeriarenak? Zergatik?

4. Ondorioak

Horma irudi bat egingo dute egindako marrazki, konponbide eta jardueren ondorio guztiekin, eta ikasgelan edo ikastetxeko beste leku batean jarriko dute.

Amaitzeko, irakasleak hauen moduko ideiak azal ditzake:

- Askotan, gure ikastetxean, gizartean eta munduan gertatzen diren indarkeriazko egoerak korapilatu egiten dira, ez baitakigu gatazkak hitz eginez eta modu konstruktiboan konpontzen; hots, indarkeria erabili gabe.
- Hori dela eta, komeni da honako hau gogoratzea: “bestearekiko errespetua pertsonen arteko harreman guztien oinarria da”. Besteak errespetatzen ez baditugu, ez da bakerik egongo.

Azken aldi honetan, ikastetxeko jolastokian, zenbait arazo gertatzen ari dira, jolas orduan. Borrokak gertatzen ari dira mutikoen eta neskatilen artean. Mutil talde batek ia jolastoki osoa hartzen du, futboleko aritzeko, eta ez die neskei jolasteko lekurik uzten. Neskek leku handiagoa nahi dute eta futbol partiden erdian sartzen hasi dira. Mutilek bultzaka atera dituzte.



Ainarak bere ikasgelako zenbait mutil eta neska gonbidatu zituen bere urtebetetze jaira. Biharamunean, Maialenek, jaira joateko gonbidapena izan ez zuen ikaskide batek, bultza egin zion Ainarari jolastokian, bere ondotik pasatu zenean. Ainarak ere bultza egin zion, eta orduan, bien arteko tirabira hasi zen.

